*eso nos va a servir para salir reforzados y para perder complejos que hasta ahora hemos tenido. Uno de esos complejos siempre ha sido que parece que nosotros no podemos pactar o acordar con quien nos venga en gana, EB pude pactar y acordar con quien le venga en gana, de acuerdo a los contenidos que es esto, igual que otros lo han hecho e igual que otros lo harán, se nos acabaron los complejos y nosotros vamos a hacer lo que creemos que tenemos que hacer cuando tengamos que hacerlo, de la manera que creemos que tenemos que hacerlo, así de claro, aquí el PSE ha podido pactar con quien le ha dado la santísima gana cuando ha querido, vosotros habéis podido pactar cuando os ha dado la santísima gana cuando habéis querido. Nosotros, al menos, tenemos en cuenta una serie de contenidos que son los que siempre hemos defendido y los que siempre seguiremos defendiendo, a partir de ahí, trazados alternativos podemos proponer los que os venga en gana a vosotros, o los que a nosotros nos de la santísima gana de presentar, en el Tren de Alta Velocidad hemos presentado un tratado alternativo al que nadie, absolutamente nadie, o prácticamente nadie le ha hecho caso, y tercer punto y concluyo, tontos sí pero gilipollas no, así de claro, nosotros sabemos cuál es el resultado de la moción de la A-8 y por eso presentamos también el del desdoblamiento de la N-634, si nosotros supiéramos que vosotros ibais a votar favorablemente el quitar el peaje a la autopista A-8 igual nos replanteamos el presentar la otra moción, pero como sabemos que vais a votar en contra, pues presentamos las dos, igual cuela, seguramente no cuela ninguna, pero igual cuela y además tenemos derecho a hacer política, así de claro, lo hemos tenido siempre, lo tenemos ahora y seguramente más adelante lo tendremos en mayor medida.*

**Sra. Calvo del PP:**

*Yo voy a comentar, creo que lo último que ha dicho Vicente, es verdad, que si*



jakingo bagenu mozioak aurrera aterako direla, ez genuke eskatuko N-634ko bikoizketa, baina badakigunez ez dutela aurrera egingo, Aldundian PNVren politika zein den badakigunez ere, bada horrexegatik aurkeztu dugu, eta nik bi mozio hauek aurkeztea eta gaineratik Batzarkidea naizela esatea, bai bai, batzarkidea naiz, eta mozioa aurkeztuko dut hemen eta beharrezkoa den lekuetan.

Alderdi honek uste dut nik luzaroan defendatu duela A-8 dohainik izateko eskaera, egia da Errepideen Arlokako Lurralde Plan bat badagoela errepideak aztertzen ari dena, eta horregatik eskatzen dugu N-634aren bikoizketa aztertzea plan horretan; bidesariaren gaia ez dakigu ponentzian aztertuko duten ala ez, oraindik ez dugu garbi.

Hitzarmen harrigarriei dagokienez, beste udalerrri batzuetan are harrigarriago batzuk daude PNVren aldetik. Disuasio aparkalekuei edo garraio publikoari buruzko politikei dagokienez, egia da, guk ekimen horiek aurkezten jarraituko dugu A-8ko bidesaria kentzen ez den bitartean. Beti ateratzen da eztabaida hau. Eta ez dakit oso ondo dakizuen ala ez, baina A-68 entregatu zenean ez zegoen ordainduta, mailegu bat zegoen bere gainean eta horren epea luzatu egin zen, beraz, ordaintzen jarraitu behar zen; Aldundiari eman zitzaionean aldiz, mailegua guztiz kitatuta zegoen, beraz ez zegoen ezer ordaintzeko, beraz doan izan zitekeen arazorik gabe, baina Aldundiak ez zuen nahi izan, eta horregatik ezarri zen bidesaria.

#### **EAKo Atxurra jn.:**

Azkenekoa erantzun nahi nioke Albertori, besterik ez. Supersurren gaia. Argitaratu denaren arabera, 35.000.000 €-ko kostua du km-ko, eta ezinezkoa da finantzatzea edozein dela jartzen duzun bidesaria, beraz, norik ordaindu behar du Supersur hori? Ba, beste askoren artean,

*supiéramos que van a salir las mociones, no pediríamos el desdoblamiento de la N-634, pero como sabemos que no va a salir, que la política del PNV en la Diputación sabemos cuál es, pues por eso la presentamos, que yo haya presentado estas dos mociones y que encima se me diga que soy Juntera, pues sí soy Juntera, y la presentaré aquí o donde haga falta.*

*Este partido creo que ha defendido durante bastante tiempo la solicitud de gratuidad de la A-8, es verdad que hay un Plan Territorial Sectorial de Carreteras que está estudiando las carreteras y es por eso por lo que solicitamos que el desdoblamiento de la N-634 su estudio se estudie en este plan, el tema del peaje no sabemos si se va a tratar en la ponencia o no se va a tratar, todavía no lo tenemos claro.*

*Referente a pactos extraños, en otros municipios hay otros pactos todavía más extraños por el PNV. Referente a políticas de parking disuasorios o transportes públicos, es verdad, nosotros seguiremos presentando estas iniciativas hasta que no se quite el peaje de la A-8. Referente a la gratuidad de la A-68, que siempre sale este debate, no sé si saben muy bien, pero la A-68 cuando se entregó no estaba pagada había un préstamo sobre ella y se había ampliado el plazo del préstamo de ella, por lo tanto había que seguir pagando, en cambio en la A-8 cuando se entrega a Diputación éste está totalmente liquidado el préstamo por lo tanto no hay nada que pagar, por lo tanto podía haber sido gratuita perfectamente cosa que Diputación no quiso y por eso se puso ese peaje.*

#### **Sr. Atxurra de EA:**

*Sólo contestar a Alberto lo último. El tema de la Supersur. Según se ha publicado, la Supersur cuesta 35.000.000 € por Km. y es imposible financiarlo con el peaje que le pongas, por lo tanto, ¿quién vamos a pagar la Supersur?, pues los usuarios de la A-8 entre otros muchos, eso que quede claro,*



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

A-8ren erabiltzaileak, hori argi gera dadila, ezinezkoa baita ekonomikoki azpiegitura hori ordaintzea horren erabiltzaileekin soilik, edozein dela jartzen duten bidesaria.

**Alkate jn.:**

Ondo, aukera izango dugunez Amorebieta-Etxanoko udalbatza umil honetan Bizkaiko errepideen politikari buruz hitz egiteko, hurrengo puntuetara pasatuko dugu, hamahirugarrenera eta hamalagarrenera, baina lehenengo hamabigarren puntuaren bozketa egingo dugu.

Guztien adostasunik ez dagoenez, bozketa egin da eta ondoko emaitza hau irten da: lau boto alde, PPko Calvo, EAko Atxurra eta EB-B-ARALAR-eko Silva eta Rodríguez jaun-andreenak; lau boto aurka, PSE-EEko Saralegi, Hernández, Borobia eta Castellet jaun-andreenak; eta zortzi abstentzio, EAJ-PNVko Artetxe, Aurtenetxe, Agirre, Chamizo, Gallastegi, Gandiaga, Madariaga eta Latxaga jaun-andreenak. Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

PPk eta EB-B-ARALAREk aurkezturiko mozioa baztertzea, Bizkaiko Foru Aldundiari Usansolo eta Ermuaren arteko bidesaria kentzeko eskaerari buruzkoa.

**13.- PSE-EE-REN (PSOE)**  
**MOZIOA, BIZKAIKO FORU**  
**ALDUNDIKO GARRAIO SAILARI,**  
**A-8REN ERABILTZAILEEI**  
**DESKONTUAK EGITEKO**  
**ESKATZEKOA.**

**PSE-EEko Castellet jn.:**

Beno, nik ere ez dut irakurriko aurkezten dugun mozio osoa, baina bai, gauza pare bat. Orain dela bi urte hemen ere azaldu genuen —autopista liberalizatzeko edo doaneko bilakatze

*por que es inviable económicamente pagar esa infraestructura con los usuarios, ni aunque le pongan lo que le pongan.*

**Sr. Alcalde:**

*Bien, como tendremos ocasión de hablar de la política de carreteras de Bizkaia, en este humilde Pleno de Amorebieta-Etxano, pasaremos a los siguientes puntos al punto trece y punto catorce, pero primero vamos a votar el punto doce.*

No existiendo unanimidad se procedió a la votación dando el resultado de cuatro votos a favor de l@a Sr@s Calvo del PP, Atxurra de EA y Silva y Rodríguez de EB-B-ARALAR, cuatro en contra de l@s Sr@s Saralegi, Hernández, Borobia y Castellet del PSE-EE y ocho abstenciones de l@a Sr@s Artetxe, Aurtenetxe, Agirre, Chamizo, Gallastegi, Gandiaga, Madariaga y Latxaga, de EAJ/PNV, en consecuencia la Corporación por mayoría acuerda:

Desestimar la Moción formulada por el PP y EB-B-ARALAR para instar a la Excma. Diputación Foral de Bizkaia la supresión del peaje entre Usansolo y Ermua.

**13.- MOCIÓN DEL PSE-EE**  
**(PSOE) PARA INSTAR AL**  
**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES**  
**DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE**  
**BIZKAIA LA APLICACIÓN DE**  
**DESCUENTOS A LOS USUARIOS DE**  
**LA A-8.**

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Bueno, yo tampoco voy a leer toda la moción que presentamos pero sí un par de cosas, y hace dos años también explicamos aquí, se presentó la misma moción de liberalizar la autopista o hacerla gratuita,*



mozio bera aurkeztu zen—, guk eskatzen duguna dela gutxienez gipuzkoarrek dituzten eskubide berberak izatea.

Gauza pare bat irakurriko ditut “Bere aldetik, Europar Batzordeak azpiegituren erabileran bidezko bidesariei buruzko Liburu Zurian ezarri zuen azpiegituren tarifa ezartzeak horien erabilerara eraginkorra sustatu behar duela, baina tarifa horiek zuzenean lotu behar direla erabiltzaileek azpiegiturari sortzen dizkioten kostuekin, eta beste batzuekin ere, ingurumenari eragindakoa barne, eta erabiltzaileek eragindako bestelako batzuekin”. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepideen Departamentutik, 26/2004 Foru ebazpen bidez, Gipuzkoako azpiegituren finantza eta mantenturako eredu baten azterketa eta proposamenaren ponentziaren ondorioz, egoiliar gipuzkoarrei ibilgailu arina erabiltzen duten A-8ko ohiko erabiltzaileei deskontuak aplikatuko zaizkiela hilean egiten dituzten bidaien arabera, eskala jakin baten arabera, eta aipaturiko deskontu horiek ere aplikatuko zaizkiela zati gipuzkoarrean ibilgailu arina duten erabiltzaile bizkaitarrei A-8ko ohiko erabiltzaileak badira, eta baita egoiliar gipuzkoarrei zati bizkaitarrean ere zati gipuzkoarraren eta bizkaitarraren ustiapenez arduratzen diren sozietate publikoek bere garaian sinatuko balute hitzarmen bat”.

Horrek esan nahi du, dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiak onartuta daukala puntu hori, guk ere eskatzen duguna onartuko bagenu, hau da: “hile bakoitzeko 1. eta 8. egunen artean eginiko bidaiari %25ko deskontua egitea baldin eta hilean 5 bidaiari baino gehiago egiten diren; 9. eta 20. egunen arteko bidaien zenbatekoari %55eko deskontua aplikatzea; eta 21. egunetik aurrerako bidaien zenbatekoari %75eko deskontua”.

*que nosotros lo que pretendíamos es que por lo menos tuviéramos los mismos derechos que tienen los guipuzcoanos.*

*Voy a leer un par de cosas “Por su parte La Comisión Europea establece en el Libro Blanco sobre tarifas justas en el uso de infraestructuras que la tarificación de infraestructuras debe fomentar una mayor eficiencia en el uso de las mismas, pero esas tarifas deben vincularse directamente a los costes que los usuarios producen a la infraestructura y otros incluidos los producidos al medio ambiente y otros extremos causados por los usuarios” y por otro lado, desde el Departamento de Transportes y Carretera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante el Decreto Foral 26/2004 aprobó tras la ponencia por el estudio y proposición de un modelo de financiación y mantenimiento de las infraestructuras de Gipuzkoa que a los residentes guipuzcoanos que utilizando un vehículo ligero sean usuarios habituales de la autopista A-8 se les aplicarán descuentos según el número de viajes que realicen al mes de conformidad a una escala concreta y que dichos descuentos se aplicarán también en el del tramo guipuzcoano de la A-8 a los residentes vizcaínos que utilizando vehículos ligeros sean usuarios habituales de la autopista A-8, así como también a los residentes guipuzcoanos en el tramo vizcaíno de conformidad con el convenio que oportunamente se establezca entre las sociedades públicas encargadas de la explotación de los tramos guipuzcoano y vizcaíno”.*

*Esto quiere decir, que ya la Diputación de Gipuzkoa ya tiene aprobado esto en el caso de que nosotros aprobáramos también lo que estamos pidiendo que es ; “que el importe de los viajes comprendidos entre el 1º y el 8º día de cada mes se le aplicará un descuento del 25% siempre que se efectúen más de 5 viajes al mes, al importe de los viajes comprendidos entre el 9º y vigésimo día de cada mes se les aplicará un descuento del 55% y al importe de los viajes*



Honek zera esan nahi du, langile batek edo beste edozein erabiltzailek egunero gutxienez bi bidaia egiten baditu 21 egun baino gehiagotan, hilaren amaieran 8 € ordainduko duela une honetan ordaintzen dituen berrogeita hamapiku horien orde. Nire ustez, Gipuzkoan horrela egiten bada, guk ere egin behar dugu. Bide batez, beste erantzun batzuk ere. Esaten ari zaigu PNVren aldetik zergatik aurkezten dugun hau hemen, ez dela ulertzen zergatik ekartzen den hau hona, horretarako daudela Batzar Nagusiak; baina orduan zertarako gaude hemen, Batzar Nagusietan honetaz hitz egiten ari direlako zergatik ez dugu aurkeztuko Udalean mozio bat, uste dut eskumena dugula hemen aurkezteko, Durangon, Abadiñon, Elorrión, eta gainera horrelaxe egiten ari gara. Edozein modutan, PNVko diputatuak aurkeztu duena emendakin bat da, baina oraindik emendakin horren bozketa egin gabe dago, baina Durangaldea osoan ez dute ezer aurkeztu, eta zuen aldetik esan zen: emendakina aurkeztu urria baino lehen, azterketa egin. Gu ez gara geldirik egongo beste talde batzuek gaur hemen aurkeztu den moduko mozioak aurkezten dituzten bitartean; beraz, PNVk Batzar Nagusietan emendakina aurkezten duenean orduan erabakiko dugu, eta beti bezala, bat etorriko gara iritsi garen akordioekin; eta ezin zaigu akusatu guri gauzak kontsultatu gabe egiten ditugunik eta leku bakoitzean egitea, zuek Usansoloko langa altxatu baituzue guri batera kontsultarik egin gabe.

Gu ez gaude ados autopista doan izatearekin funtsezko arrazoi batengatik. Egun dugun bide arin bakarra bidaia bat egiteko A-8 autopista da, eta doan jarriko bagenu, ez bakarrik N-634tik doazen ibilgailuak, baizik eta askoz ere gehiago etorriko lirakeke, une honetan autobusa edo trena erabiltzen dituztenak ere bide horretatik joango lirakeke eta dagoen bide

*realizados a partir del vigesimoprimer día de cada mes se le aplicará un descuento del 75%” esto quiere decir, que un trabajador o cualquier usuario de la autopista que haga un mínimo diario de dos viajes diarios durante más de 21 días al final del mes podría pagar unos 8 € frente a los 50 y tantos que paga en estos momentos, yo creo que si en Gipuzkoa se está haciendo así, nosotros también tenemos o debemos hacerlo y ya de paso contesto un poco, por qué se nos dice porque presentamos esto aquí, se dice por parte del PNV, no entendemos porque se trae esto aquí para eso están las Juntas, entonces nosotros para qué estamos, ¿ porque en las Juntas se esté hablando de una cosa, nosotros no vamos a presentar en un Ayuntamiento una moción?, creo que tenemos potestad para presentarla aquí, en Durango, en Abadiño o en Elorrio y de hecho las estamos presentando, de cualquier forma lo que se ha presentado por parte del diputado del PNV es una enmienda pero que todavía está sin votar pero lo que es todo el durangaldea no han presentado nada y lo que se dijo por vuestra parte es presentar una enmienda antes de octubre, hacer un estudio, nosotros no vamos a estar parados mientras otros grupos presentan mociones como las que se han presentado hoy aquí, por lo que cuando se presente esta enmienda por parte del PNV en Juntas entonces decidiremos y como siempre seremos coherentes con los acuerdos a los que hemos llegado, y no se nos puede acusar a nosotros de hacer las cosas sin consultar o hacerlas en cada sitio, cuando vosotros habéis levantado la barrera en Usansolo, sin haber consultado con nosotros para nada.*

*Nosotros no estamos de acuerdo en que sea gratuita la autopista por una razón fundamental la única vía que tenemos en estos momentos ligera para hacer un viaje es la Autopista A-8, si levantáramos la autopista el número de vehículos no sólo que ya va por la N-634, sino más vehículos aún que ahora en estos momentos gente que utiliza el autobús o el tren irían a esas vías*



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

azkar bakarra kolapsatu egingo litzateke, Bilbo eta Castroren artean gertatu den bezala esate baterako, doan denez, egunero dago kolapsatua, eta horixe da ekidin nahi duguna, eta sortzen den edozeren aurrean edonork aukera izatea bide hori hartzeko eta nahiko arin egiteko bidaia. Usansoloko bidesaria kendu dutenetik, lehendik ere Galdakaotik Bilborantz kolapsatua bazegoen, orain bikoitza dago. Horregatik uste dugu guk prezioak murriztea ona litzatekeela herrikoentzat, eta ona litzatekeela autopista ez kolapsatzeko, eta bide azkar bat egongo litzakeela momenturo.

**Alkate jn.:**

PNVren jarrera abstentzioa izango da 12., 13. eta 14. puntuetan lehen Albertok adierazi duen bezala. Eta abstentzioa da gure ustetan une honetan desegokia delako eztabaida hau hemen. Bizkaiko Batzar Nagusietan osatu den ponentzia teknikoan errepideei buruzko guztia aztertzen ari dira, A-8ri dagokiona, bidesariei buruzkoa, bidesarietan deskontuak eta egungo errepideen bikoizketak, hala dagokionean. Beraz, benetan uste dugu, berriro ere, eta ustez ezagutzen ditudan arrazoiengatik, idiak jarri baino lehen gurdia jartzen ari garela. Eta, kasu honetan, Errepideen Arlokako Lurralde Planaren ponentzia tekniko horren berri dugunean, Udalak berak, eta talde politiko bakoitzak noski, egin beharko ditu edo egin ahal izango ditu egokiak iruditzen zaizkion alegazioak. Une horretan bakoitzarena islatuko da. Nik uste dut Antoniok oraintsu esan duena egia dela. Ematen du, zalantzarik ez omen dago, horri buruz dauden inpresio teknikoen arabera behintzat, alde batera, autopista liberalizatzeak ibilgailuen kopurua handitu egingo duela nabarmen, auto pribatuak gas nobleak bezalakoak baitira, eskura duten espazio osoa betetzen dute eta. Horixe da Galdakaon gertatu

*con lo cual se colapsaría la única vía rápida que hay en estos momentos como ha ocurrido entre Bilbao y Castro, por ejemplo, que al ser libre, está colapsada diariamente, entonces lo que queremos es evitar eso, y que para cualquier cosa que surja una persona pueda coger esta vía para hacer un viaje mínimamente rápido, con el levantamiento del peaje en Usansolo lo que ha ocurrido es que si ya estaba colapsado desde Galdacano para Bilbao ahora está el doble, es por eso que nosotros pensamos que una disminución en los precios por viaje sería bueno para los vecinos, y sería bueno para que no se colapsara la autopista y que habría una vía rápida en cualquier momento.*

**Sr. Alcalde:**

*La postura del PNV, como ha dicho antes Alberto va a ser la de la abstención en el punto 12, punto 13 y punto 14, y es abstención porque creemos que en este momento es impropio su discusión aquí. En la ponencia técnica que se ha constituido en las Juntas Generales de Bizkaia se está estudiando todo lo relativo a las carreteras, lo relativo a la A-8, lo relativo al peaje, descuentos en el cobro de los peajes y desdoblamientos, en su caso, de las carreteras actuales. Entonces, sinceramente, creemos que estamos poniendo una vez más, y por motivos que creo conocer, los carros antes que los bueyes. Entonces, en este caso, cuando tengamos noticia del PTS de carreteras, de esa ponencia técnica, el Ayuntamiento como tal y, por supuesto cada grupo político, tendrá que hacer o podrá hacer las alegaciones que estime oportunas. Cada uno se va a retratar en ese momento. Yo creo que lo que ha comentado ahora Antonio es verdad. Lo que no hay ninguna duda, por lo menos las impresiones técnicas que hay al respecto, son que, de alguna manera, la liberalización de las vías de la autopista va a hacer que se incremente el número de vehículos considerablemente, los vehículos privados son como los gases nobles que ocupan todo el espacio que tienen*



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

dena eta Galdakaotik ona gertatuko dena. Garraio publikoa erabiltzen duen jendeak ez du erabiliko, autopista doan badauka. Badirudi ebidentea dela, eta autoa etxean uzten zuenak edo gutxiago erabiltzen zuenak, autopista erabiliko du, zalantzarik ez. Esaten duguna da nolabait, proposamenetan koherentzia erakutsi behar dela, autopista liberalizatzen bada, jakin ezazue hazi egingo dela zirkulazioan ibiliko diren ibilgailuen kopurua, eta beste gai batzuetan neurriak hartu beharko direla, adibidez jasangarritasunari eta garraio publikoari buruz, eta politika horrekin zerikusia duten gaiei buruz. Ezin dena egin da Jaungoikoari kandela bat jarri eta beste bat deabruari, eta gainera biak batera. Politika posible denaren artea eta erabakien artea da, eskatzea ondo dago, baina kontsekuentea izan behar da eskatzen denarekin. Edozein kasutan, ponentzia landu ondoren eta gure eskuetara iritsitakoan, berritasunak ekarriko ditu, nik ditudan berrien arabera behintzat, eta behin berritasun horiek jaso ponentziatik, unea izango da apelatzeko, alegatzeko edo egokia iruditzen zaizuen egiteko. Beraz, gure jarrera puntu honetan ere abstentzioa izango da. Kontua ez da ez gaudenik ados PSEk eskatzen duenarekin, baizik eta ustez ez gaudela prozesuaren momentu egokian horretarako. Beti defendatu izan ditugu, orain dela bi urte defendatu genituen, eta ezin beste era batera izan, errepide honetan hobekuntzak eta deskontuak, batez ere, horrenbeste ukitzen gaituen zornotzarrentzat. Deskontu bat eman zen Montorrako Tn, eta 65 cent. merkatu zuen Durangorako bidaia autopistaz. Urrats bat izan zen, baina beno, ados gaude filosofiarekin, ez gaude ados jarduteko prozedurarekin eta batez ere momentuarekin.

**EB-B-ARALAReko Silva jn.:**

Guri onargarria iruditzen zaigu alderdi sozialistaren mozioa eta abstenitu

*a su disposición. Eso ha ocurrido de Galdakao para allá y ocurrirá de Galdakao para acá. La gente que utiliza transporte público no lo va a utilizar si tiene la autopista gratis. Eso parece que es de cajón, la gente que deja el coche en casa o lo utiliza menos, va a utilizar la autopista eso también es bastante impepinable. Lo que decimos es, de alguna manera, que se sea coherente en las propuestas, si se quiere la liberalización de la autopista que se sepa que va a haber un incremento de los vehículos en circulación y que se adopten medidas en otros temas, por ejemplo en torno a la sostenibilidad, por ejemplo en torno al transporte público, que tengan algo que ver con esa política. Lo que no se puede poner es una vela a Dios y otra al diablo y las dos a la vez. La política es el arte de lo posible y de decidir, pedir está muy bien pero hay que ser consecuente, creemos, con lo que se pide, en todo caso, una vez que tengamos la ponencia y la ponencia esté elaborada, la ponencia va a traer novedades, por las noticias que yo tengo, una vez de que haya novedades en esa ponencia será el momento de apelar, alegar o hacer lo que se considere oportuno. Por lo tanto, nuestra posición en este punto va a ser la abstención también. No es que no estemos de acuerdo con lo que pide el PSE, pero pensamos que no estamos en el momento procesal oportuno. Siempre hemos defendido, lo defendimos hace dos años, evidentemente, como no puede ser de otra forma, mejoras y descuentos en esa vía, sobre todo para los zornotzarras que es lo que nos atañe. Hubo un descuento con la vía T en Montorra que redujo en unos 65 céntimos de euro el viaje a Durango por autopista. Es un paso, pero bueno, no estamos en desacuerdo con la filosofía, estamos en desacuerdo con la forma de proceder y sobre todo el momento.*

**Sr. Silva de EB-B-ARALAR**

*A nosotros nos parece asumible la moción del partido socialista y nos vamos*



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

egingo gara. Lehenengo, zuek ez duzuelako gure mozioaren aldeko botorik eman eta haur batzuk garenez, ez dugu zuena sostengatuko. Bigarrenik, jakin badakigulako botatua aterako dela, PNV abstenitu egingo delako, zuek alde emango duzue botoa, beraz onartu egingo da. Eta hirugarrenik, gurea zuena baino askoz hobea iruditzeaz gain, EBk erabaki politikoa hartu duelako PSEren mozio honen aurrean abstenitzekoa, eta zergatik da erabaki politikoa, ez garelako fidatzen PSErekin; eta zergatik ez garen fidatzen PSErekin? EBren egoeraren erantzuleetako edo errudunetako bat delako, EB eta IU maila orokorrean, jasaten ari den jazarpen eta erasoen errudunetako bat delako, nekatuta gaudelako komunikabideetan egunak joan eta egunak etorri entzuteaz ez dakit zer garela, nekatuta gaudelako zuek nahi duzuen egin dezakezuelako eta nahi duzuenean, nekatuta gaudelako zuek mozioak aurkezteaz edo aurkeztu nahi duzuenaz eta Euskadiko defendatzaileak eta aitzin-gidariak izatea, egia absolutuaren jabe zuek izatea, eta nekatuta gaudelako noski horrekin guztiarekin, egun batean gauza batzuk sostengatu eta hurrengoan akordioaren bat lortuz gero Aldundiarekin sostengatu duzuen ahaztu egiten duzuelako. Eta gu hemendik aurrera, aspalditik ere, baina batez ere une honetatik aurrera, ez gara PSEren konpartsak izango, ez Euskadin, ezta Estatu Espainoleko beste inon ere, tontakeria irudituko zaizue zuei, baina guri ez, eta ondo dakigu zergatik esaten dugun.

**EAKo Atxurra jn.:**

Batzuetan ematen du “La Codorniz” berpiztu dela hemen, edo gorren arteko elkarrizketak ditugula. Antoniok dio autopista irekitzen bada, kolapsatu egingo dela, eta nik datu erreal batzuk eman ditugu guztiz kontrakoa erakusten dutenak. Esan dut une honetan

*abstener, primero porque no habéis votado a favor de la nuestra y como somos unos críos no vamos a votar a apoyar la vuestra, segundo porque sabemos que va a salir votada, por que va a salir aprobada, porque se va a abstener el PNV, nosotros nos vamos a abstener, vosotros vais a votar favorablemente, luego va a salir aprobada y tercero, además de que porque la nuestra nos parece mucho mejor que la vuestra, porque es una decisión política que ha tomado EB el abstenerse en esta moción del PSE, y por qué es una decisión política, por que no nos fiamos del PSE, y ¿por qué no nos fiamos del PSE? porque es uno de los encargados o de los culpables de la situación de EB, es uno de los culpables del acoso y derribo que está sufriendo EB y que ha sufrido IU a nivel general, porque estamos cansados de escuchar día tras día en los medios de comunicación que nosotros somos tal o cual cosa y estamos cansados de que vosotros podáis hacer lo que queréis cuando queréis, estamos cansados de que vosotros presentéis mociones o lo que queráis presentar y seáis los defensores de Euskadi y los adalides, que tengáis la verdad absoluta con vosotros y estamos cansados, por supuesto, de todo ello, de que apoyéis unas cosas y mañana si llegáis a un acuerdo en Diputación os olvidéis de lo que habéis apoyado, y nosotros desde ya, desde hace tiempo ya, pero sobre todo desde ya, no vamos a ser comparsas del PSE ni en Euskadi, ni en ninguna otra parte del Estado Español, os puede parecer una chorrada a vosotros, pero a nosotros no nos lo parece y sabemos por qué lo decimos.*

**Sr. Atxurra de EA:**

*A veces parece que aquí ha resucitado “La Codorniz” o tenemos diálogo de sordos, Antonio dice que si se abre la autopista se colapsa, yo he dado unos datos reales, en los que dice todo lo contrario, he dicho que en este momento transitan 34.500 vehículos en 3 carriles y 25.000 vehículos en*



34.500 ibilgailu dabiltzala 3 karriletan eta 25.000 karril bakarrean, orain, azaldu mesedez, letretakoa omen zara nonbait, zeren eta zenbakien kontutan eskas, azalduko didazu mesedez nola kolapsa daitezkeen hiru karril 12.000 ibilgailu gehiago sartzen badira ere (N-634ren erditik gora). Eta orain, mozioari buruz, PSE da PNVren laguntza bakarra azpiegituren finantzaren politika eztabaidatuan, eta ekimen bat aurkezten digu orain A-8ko ohiko erabiltzaileei egiten zitzaizkien deskontuak berreskuratzeko, orain dela 5 urte kendu zirenak Bizkaian, eta Gipuzkoan mantentzen direnak. Ustez onartu egingo denez mozio hau, hauxe da nire galdera "nork itzuli behar digu bidegabekeriaz orain arte kobratu digutena? Aldundiak noiz utziko dio gezurrak esateari eta gu tontotzat hartzeari? Ohiko erabiltzaileei deskontuak aplikatu dakizkiokkeen berrikusteko erabakia gero eta indar handiagoa hartzen ari diren kritikak isiltzeko saiakeretako bat baino ez da, aspaldiko sistema erabiliz, azenarioa eta makila, eta halere, nire sostengua izango duzue.

**PPko Calvo and.:**

Mozio honi buruz esan behar dudana lehenengo gauza da, ongi etorri klubera. PPK urtero aurkezten ditu Batzar Nagusietan aurrekontuei emendakinak A-8ko tarifak murrizteko eskatuz, eta PSEk ez du inoiz aldeko botorik ematen. Hurrengo azaro-abenduan berriro aurkezten direnean espero dugu aurten PSEk onartzea. A-8ren bidesariaren %100eko beharpena lortu arte, hau da, aurreko mozioan eskatu duguna lortu arte, egiten diren beharpenekin konformatzen joango gara, nahiz eta ez dugun etsiko A-8ren bidesaria itzultzeko eta kentzeko eskatzen. Alkateak komentaturiko bi gauzei buruz, lehenengo mozio hauek aurkeztearen desegokitasunari buruz, nik uste dut beti izango dela hobe mozio

*un carril, ahora me podías explicar, por lo visto se ve que eres de letras, porque de número más bien poco, me podías explicar cómo se puede explicar, cómo se puede colapsar tres carriles aunque se incorporen 12.000 más la mitad de la 634, y ahora sobre la moción, el PSE es el único apoyo del PNV en la controvertida política de financiación de infraestructuras y nos presenta una iniciativa para recuperar los descuentos a los usuarios habituales de la A-8, que en Bizkaia se eliminaron hace 5 años y en Gipuzkoa se mantienen, como presuntamente se va a aprobar esta moción, mi pregunta es ¿quien nos va a devolver el importe injustamente cobrado?, la Diputación ¿cuando dejará de mentirnos, de tomarnos por estúpidos?, la decisión de revisar si se pueden aplicar descuentos a usuarios habituales no es nada más que los intentos de acallar las críticas que se arrecian cada día con más fuerza, utilizando el conocido sistema de la zanahoria y el palo y a pesar de todo, os voy a apoyar.*

**Sra. Calvo del PP:**

*Lo primero que tengo que decir referente a esta moción, es bien venidos al club, el PP presenta en Juntas Generales todos los años unas enmiendas a los presupuestos en los que pide las rebajas en las tarifas de la A-8 y nunca son votadas a favor por el PSE, esperamos que cuando el próximo noviembre o diciembre se presenten las mismas sean aprobadas este año por el PSE. Hasta que no se consiga el 100% de la rebaja del peaje de la A-8, que es lo que hemos pedido en la anterior moción, nos iremos conformando con las rebajas que se hagan, aunque no cesamos en el empeño de seguir solicitando la devolución del peaje de la A-8 y la eliminación del mismo. Sólo para plantear dos cosas comentadas por el Alcalde antes, referente a la improcedencia*



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

hauek, gure udalerrria zuzenean ukitzen dutenak, Aldundiraino iristea, bera baita azkenean bidesarien politika egiten duena, baina orduan ikuspegi zabalagoa izango du edo ikusiko du zer nolako kezka duten gure herriko bizilagunak. Eta beno, beti komentatzen du berriak dituela Alkateak, errepide edo beste era bateko gaiei buruz, baina inoiz ez dakigu zer berritasun diren, beti esaten duelako errepidean aldaketak egongo direla, baina otsailean esango zirela esan zitzaigun eta maiatzaren bukaeran gaude, eta ez da ezer aurkeztu, apur bat harrigarria iruditzen zaigu. Eta Atxurak ibilgailuen gaiari buruz emandako datuak, guk geuk ere bagenituen, eta apur bat harrigarria iruditzen zaigu esatea horrek autopista kolapsatuko lukeela.

**PSE-EEko Castellet jn.:**

PPrekin hasiko naiz. Ez dakit PPren proposamenei aldeko botorik eman diegun Batzar Nagusietan deskontuen gaian, ezta botorik emango dugunik emendakina aurkezten dutenean. Errepideen azterketa egiten ari den Batzorde hori akordio batera iristen denean, orduan ikusiko dugu zer den egokiena bozkatzea, une horretan. Ez dut uste aldeko botorik eman ez dugunik PPK aurkeztu dituelako, guk normalean, ondo iruditzen bazaigu, botoa ematen dugu. EAri dagokionez, ez naiz ez letretakoa ez zenbakietakoa, erdi-behe mailako herritar bat naiz, ez dut gauza handirik ulertzen honi buruz, baina gauza bat bai ulertzen dut, zuk 34.500 ibilgailu gehi etor daitezkeen 25.000 gehiago sartzen badituzu autopistan, eta denek leku berean topo egin behar badute, tapoia egingo da, horretarako ez da ez letretakoa ez numeroetakoa izan behar, zentzuduna izatea nahikoa da, eta horixe da guk dioguna. Dena den, pentsatzen dut gure alderdiak izango dituela bai letretakoak bai numeroetakoak, eta hauxe proposatzen

*de presentar esta mociones, yo creo que siempre será mejor que estas mociones que afectan concretamente a nuestro municipio lleguen hasta Diputación porque al final es la que hace la política de peajes, entonces tendrá más la visión o verá más la preocupación que pueden tener nuestros vecinos. Y bueno, comenta siempre que tiene novedades, el Alcalde, sobre tema de carreteras u otro tipo de temas pero nunca sabemos qué novedades son porque siempre se dice que va a haber unas modificaciones en la carretera pero desde febrero que se dijeron, estamos ahora a finales de mayo y no se ha presentado nada, nos parece un poco extraño. Y referente al tema de los vehículos los datos que ha dado Atxurra los teníamos nosotros y nos parece un poco raro que se diga eso que se colapsaría la autopista.*

**Sr. Castellet de PSE-EE:**

*Empiezo por el PP, no sé si hemos votado en Juntas las propuestas del PP, sobre el tema de los descuentos, ni si las vamos a votar porque cuando se presente la enmienda o cuando esa Comisión que esta haciendo el estudio de carreteras, lleguen a un acuerdo, entonces veremos qué es lo más oportuno que podamos votar, en ese momento, no creo que no hayamos votado porque las ha presentado el PP, nosotros normalmente votamos si nos parece bien. En cuanto a EA, ni soy de letras ni soy de números, soy aquí un ciudadano medio bajo, no entiendo mucho de esto, pero sí entiendo una cosa si tú metes 34.500 vehículos un sitio, 25.000 más los que se puedan sumar, y todos van a confluir en un mismo sitio se monta un tapón, eso no hay que ser ni de letras ni de números, es de sentido común y eso es lo que nosotros decimos. No obstante, me imagino que cuando nuestro partido que si tendrá alguno que sea de letras y alguno de números, está proponiendo esto será por que habrá hecho un estudio, supongo.*



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

badigu izango da azterketa egin duelako, suposatzen dut nik.

EB-Berdeak-eko Silvari dagokionez, guk lehen kontrako botoa ematea pentsatzen genuen, eta kontrako botoa eman dugu. Jakin izan bagenu PNV abstenitu egingo zela, kontrako botoa ere emango genuen, guk kontrako botoa eman dugulako ez PPK edo EBk aurkeztu dutelako, baizik eta ez genuelako ondo egingo aldeko botoa emanda, eta autopista mundu guztiarentzat irekitzea, doan. Eta kontxo, PSEri zuen arazoan errua botatzea ere, izugarria da, zeren eta hori egiten baduzue ez duzuela orainik esan nahi du, ez duzuela inongo etorkizunik. Ez da gure arazoa, jakina, etorkizunik izatea ala ez, eta baduzue hobe zuentzat, eta ez baduzue, zuentzat okerrago, baina ez guretzat. Guk gure politika egiten dugu, eta ez da gure errua zuek Eusko Jaurlaritzan egotea, ez da gure errua zuek Arrasaten egotea, gobernu osatzen duzuenekin gobernatzea, eta gertatzea gertatu zena. Ez, ez da gure errua; zuek han aurkeztu zineten eta ez zineten desmarkatu. Ez da gure errua ere azken 8-12 urteetan egin duzuen politika, zeren zuek honekin azkenean esaten ari zaretena da herritarrak tontoak direla eta PSEk zuzentzen dituela. Horixe da Vicentek oraintxe esan duena, eta nire ustetan errespetu falta izugarria da, herritarrek badakite nori ematen dioten botoa, noiz ematen duten botoa eta zergatik ematen duten, eta nik hori besterik ez dizut esan behar, sentitzen dut zuek pentsatzea gaitz guztien errudunak gu garela, zuen barruan bilatu gabe, hortxe bilatu behar baitira lehenengoz.

Ahobatezkotasunik ez dagoenez bozketa egin da eta ondorengo emaitza hau irten da: sei boto alde, PPko Calvo, EAko Atxurra eta PSE-EEko Saralegi, Hernández, Borobia eta Castellet jaun-andreenak; eta hamar abstentzio, EB-B-ARALAReko Silva eta Rodríguez eta

*En cuanto a Silva, EB-Berdeak nosotros antes siendo coherentes pensábamos votar en contra y hemos votado en contra, si hubiéramos sabido que el PNV se iba a abstener, habríamos seguido votando en contra porque votamos en contra, no porque presente el PP o EB, sino porque creemos que no haríamos un bien votando esto y que se abriría la autopista para todo el mundo libre, gratuitamente. Hombre, culparnos al PSE de los problemas vuestros ya es la leche, por que si hacéis eso no tenéis presente es que no tenéis ningún futuro, no es nuestro problema evidentemente que lo tengáis o dejéis de tenerlo, si lo tenéis mejor para vosotros y si no lo tenéis peor para vosotros, pero no para nosotros. Nosotros hacemos nuestra política, y no es culpa nuestra que vosotros estéis en Gobierno Vasco, no es culpa nuestra que vosotros estéis en Mondragón, gobernando con los que gobernáis y que pasara lo que pasó. No, no es culpa nuestra, vosotros os habéis presentado allí y no os desmarcasteis, ni es culpa nuestra la política que habéis hecho los últimos 8 o 12 años, que es lo que los ciudadanos, porque vosotros al final lo que estáis diciendo con esto es que los ciudadanos son unos imbéciles y que están dirigidos por el PSE. Eso es lo que acaba de decir Vicente, y a mi me parece que es una falta de respeto total y absoluto, los ciudadanos saben a lo que votan, cuando votan y por qué votan, y yo solamente te tengo que decir eso, siento mucho que creas que somos nosotros los males, sin buscarlos dentro, que es por donde hay que buscarlos primeramente.*

No existiendo unanimidad se procedió a la votación dando el resultado de seis votos a favor de I@S Sr@s Calvo del PP, Atxurra de EA, Saralegi, Hernández, Borobia y Castellet del PSE-EE y diez abstenciones de I@S Sr@s Silva y Rodríguez de EB-B-ARALAR, Artetxe, Aurtenetxe, Agirre,



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

EAJ-PNVko Artetxe, Aurtenetxe, Agirre, Chamizo, Gallastegi, Gandiaga, Madariaga eta Latxaga jaun-andreenak. Beraz, Udalbatzak aho batez

**ERABAKI DU:**

PSE-EE (PSOE)k eginiko mozioa onartzea, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioetako Departamentuari A-8ko erabiltzaileei deskontuak aplikatzeko eskaerari buruzkoa.

**14.- PP-REN ETA EB-REN MOZIOA, BATZAR NAGUSIETAN ERREPIDEEN ARLOKAKO LURRALDE PLANA AZTERTZEN ARI DEN PONENTZIAREN BARRUAN, N-634REN ERLETXE ETA GIPUZKOA ARTEKO BIDE-ZATIA-REN BIKOIZKETARI BURUZKO AZTERLANA ERANSTEN ESKA-TZEKOA.**

**PPko Calvo and.:**

Une honetan Batzar Nagusietan ponentzia batean aztertzen ari da Errepideen Arlokako Lurralde Plana, eta mozio honetan eskatzen ari garena da azterketa horretan N-634ren bikoizketa aztertzea. Egoera negargarrian dagoen errepidea da eta 6 puntu beltz ditu Bizkaiko ibilbidean. Behar duguna da Aldundian Bizkaiko lurralde historikoak duen trafiko arazoa konpontzeko proiektuak aztertzea. Datu xume batzuk botako ditut: N-634an Aldundiak 2000-2007ko epean eginiko gastua 3 milioi eurokoa izan da, 2003-2007ko epean A-8 autopistan eginiko gastua aldiz 140 milioi eurokoa izan da, aldea izugarria da eta gure ustez ere errepide hori hobetzeak Durangaldeko eta hurbileko eskualdeetako herritarren bizi-kalitatean eragin handia izango luke.

**EB-B-ARALAReko Silva jn.:**

Chamizo, Gallastegi, Gandiaga, Madariaga y Latxaga, de EAJ/PNV, en consecuencia la Corporación

**ACUERDA:**

Aprobar la moción formulada por el PSE-EE (PSOE) para instar al Departamento de Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia la aplicación de descuentos a los usuarios de la A-8.

**14.- MOCIÓN DEL PP Y EB PARA INSTAR A QUE DENTRO DE LA PONENCIA QUE ESTUDIA EL PLAN TERRITORIAL SECTORIAL DE CARRETERAS EN JUNTAS GENERALES INTRODUZCA UN ESTUDIO DEL DESDOBLAMIENTO DE LA N-634 ENTRE ERLETXES Y GIPUZKOA.**

**Sra. Calvo del PP:**

*En este momento hay una ponencia en Juntas Generales donde está estudiando el Plan Territorial Sectorial de Carreteras, y lo que estamos pidiendo en esta moción es que se estudie en la misma el desdoblamiento de la N-634, una carretera que se encuentra en un estado indigno, que contiene 6 puntos negros en su trazado por Bizkaia y su situación deja mucho que desear, lo que necesitamos es que desde Diputación se analicen proyectos para la resolución del problema del tráfico que tiene el territorio histórico de Bizkaia, como simples datos vamos a decir que el gasto realizado del 2000 al 2007 por Diputación en la N-634 es de 3 millones de euros, en cambio el gasto realizado entre 2003-2007 en la A-80 es de 140 millones de euros, la diferencia es abismal y también consideramos que una mejora de esta carretera redundaría en la calidad de vida de los vecinos del Duranguesado y las demás comarcas cercanas.*

**Sr. Silva de EB-B-ARALAR**



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

Guk aldeko botoa emango dugu mozioan, horregatik aurkeztu dugu, beste arrazoi batzuen artean. Lehen esan da desegokia zela mozio hauek aurkeztea, nire ustez egokia da aurkeztea egokitzat jotzen dena aurkeztea, horregatik dugu eskumena egiteko, egokia da aurkeztea eta egokia da eztabaidatzea, bakoitzak du aukera eztabaidatzeko edo ez eztabaidatzeko, aldeko botoa emateko, aurkako edo gogoak ematen diona egiteko bere ideia politiko, mental edo kontuan hartu nahi duenaren arabera. Mozio hau sinplea da, eta nire ustez, guztiz zentzuduna. Gure asmoa ez da 20.000 errepide gehiago egitea eta Bizkaia autoz betetzea, guztiz kontrakoa baizik, eta guztiz kontrako horretan sartu gabe, guk nahi duguna da Bizkaian segurtasuna eta berdintasuna zirkulatzeko garaian. Garbi dago zer dioen mozioak, baina halere bai sartu nahi nuke edo arreta eman behintzat bikoizketak eragiten duen oinarritzko kontu baten gainean. Puntu bat dago, beno puntu beltz asko dago errepide honetan, baina badago bereziki bat beltza izan dena aspalditik, eta Erletxe ondoan dago hain zuzen ere; istripuak gertatu izan dira egun batean bai, eta hurrengoan ere bai, eta hildakoak ere bai, gehiegi. Gure ustetan, Aldundia guztiaren jakinaren gainean egon da, bertakoen kexu eta salaketak direla-eta, Ertzaintzari egin zaizkion informazio horien jakinarazpenaren bitartez, edo beste bide batzuk direla medio, eta neurri batean soluzionatu da, beraz kontuan hartu beharko luke bikoizketa hori, ez bakarrik trafikoa hobetearren, baizik eta bizkaitarren segurtasuna hobetzeagatik puntu zehatz honetan eta beste batzuetan ere.

**EAko Atxurra jn.:**

Aldeko botoa emango dut, baina justu-justu. Nire ustez irtenbidea ez da errepide bat gehiago egitea, 3 ditugu A-8an, gehi bat N-634an, nire ustez nahikoa eta soberan, egin behar dena da A-8a

*Nosotros vamos a votar favorablemente la moción, por eso la presentamos, entre otras cosas. Antes se ha dicho que no era pertinente el presentar estas mociones, yo creo que es pertinente presentar lo que se considere oportuno presentar, para eso tenemos la potestad de hacerlo, es pertinente presentarlo y es pertinente debatirlo, cada uno tiene la opción de debatirlo, de no debatirlo, de votarlo favorablemente, de votarlo en contra de hacer lo que le venga en gana de acuerdo con sus postulados políticos, mentales o lo que quiera considerar. Esta moción es sencilla y es, creo, que de sentido común. No pretendemos crear 20.000 carreteras más y llenar Bizkaia de coches, sino todo lo contrario y sin entrar en todo lo contrario lo que pretendemos es una seguridad en Bizkaia a la hora de circular y una igualdad a la hora de circular. Queda claro lo que dice la moción, pero sí quería introducir o llamar la atención, sobre una cuestión básica que implica este desdoblamiento. Hay un punto, hay muchos puntos negros en esta carretera, pero hay uno que realmente ha sido negro desde hace mucho tiempo que precisamente está al lado de Erletxes donde se han producido accidentes, día sí, y creo que día también, y muertes bastantes, demasiadas. Creemos que la Diputación, que ya ha tenido, a través de quejas de vecinos, de denuncias o de traslado de estas informaciones a la Ertzaina o a través de distintos medios ya tiene conocimiento de ese punto y en parte se ha solucionado debería tener en cuenta este desdoblamiento ya no sólo por mejorar el tráfico por mejorar esto, sino por mejorar la seguridad de los vizcaínos en este punto en concreto y en otros más.*

**Sr. Atxurra de EA:**

*Voy a votar a favor, pero justito, justito. Yo creo que la solución no es hacer otra carretera más, tenemos 3 de A-8, más una de la 634, creo que es más que suficiente lo que hay que hacer es liberar la A-8, y*



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

liberalizatu. Errepide berri bat egitea nire ustez ingurumenaren eta guztiaren aurka doa, eta teknikoki nik uste dut gainera oso konplikatua dela.

**PSE-EEko Castellet jn.:**

Guk mozio honen aldeko botoa emango dugu, eskatzen den gauza bakarra delako errepide guztiak aztertzen ari den Batzordeak puntu hau sartzea; beraz, ez dugu ikusten zergatik ezin den egon eta ezin den botorik eman. Beste kontu bat da arazoak egotea N-634a osoa bikoizteko, baina beno, nolabait egin daiteke, adibidez Frantziaren hegoaldean dagoen bezala, zati batzuetan bikoizketa egin da, eta beste batzuetan ez, ezin delako, eta beno nik uste dut hori guztia Batzarretako Batzorde horrek egiten duen azterketan jasoko duela, eta ahal den lekuetan egingo duela, eta ezin denetan, ez dela egingo. Nire ustetan ondo legoke N-634an bikoiztea posible den zatietan.

**Alkate jn.:**

Gure jarrera da neurri batean 12. eta 13. puntuetan azaldutakoa. Pentsatzen dugu, jarraitzen dugu pentsatzen desegokia dela, gure ikusteko modua da. Dena den, jabetzen gara N-634ren iragazkortasuna arazoa dela Amorebietako auzo batzuetan. Zornotzako auzo batzuetan arazoak ditugu, hain zuzen ere, San Antonio auzoan eta Saratsuko irteeran, Eubako zonaldean. Jakin badakigu arazoak ditugula N-634an sartzeko, baina ez dugu uste bikoizketa denik irtenbidea. Beraz, euliak kanoikadaka akabatzen ari gara proposamen hauekin. Printzipioz, Aldundiari eskatu zaio iragazkortasuna hobetzea, gutxienez Amorebietako N-634ren ibilbidean, baina guretzat lehentasun askoz handiagoa dituzte beste inbertsio batzuek. Herri lanetan Aldundiak egin behar dituen inbertsio guztiak ezin dira batera egin, baina guk uste dugu Amorebietari eragiten dioten hau baino

